



Bizkaia Digital Market

Portugaleteko Udalak Bizkaia Digital Market plataforma ezagutzeko gonbit egin nahi dizu. Izan ere, tresna erraz, ekonomiko eta azkar honek helburu du establezimendu txikiak sarean egon ahal izatea baina sareratze horrek ekarri ohi dituen arazoak izan gabe.

CECOBIK, Bizkaiko Foru Aldundiaren lankidetzaz, iragan zen abenduan Bizkaia Digital Market plataforma aurkeztu zuen. Plataformak aukera ematen du **zure webgunea** edukitzeko, **merkataritza-enpresa edo zerbitzuetakoa izatea berdin** delarik. Webguneak bi helburu izan ditzake; batetik, **erakusleho bat izatea** zure saltokia Interneten ager dadin, eta bestetik, produktuak **linean saltzeko**. Kasu horretan, ordaintzeko eta bidaltzeko zenbait aukera ahalbidetzen dute prozesua eroslearentzat nahiz saltzailearentzat erraza izateko. Labur esanda, Bizkaia Digital Market plataformari esker webgune on bat lortzeko aukera eroso izango duzu. Gainera, nork berea erraztasunez kudeatzeko modukoa da.

Esteka honetan lineako denda baten adibide bat ikusgai dago. Gogorarazten dizuegu plataforma bai saltokietarako bai zerbitzuetarako irekita dagoela. Egun, plataforman Bizkaiko 65 establezimendu baino gehiago dago, 1.600 produktu-erreferentzia baino gehiago argitaratuak izan direlarik. Honen guztiaren ondorioz, plataforma webgunean pisu eta garrantzi handiagoa hartuz doa. Izan ere, Euskal Herritik kanpo ere izan dira salmentak.

Plataforman izena ematen duen lehenengo berrehun saltokietako bat bazara, webgunea sortzeko kostua lehenengo urtean hauxe da: 100 € + BEZ. Prezio horren barruan ondoko hauek ere daude barnean: mantentze-lanak, gaurkotzeak, euskarri teknikoa, irudiak ostatatzeko zerbitzua, posizionamendua eta webgunea bera.

Hala ere, zuei informazio zehatza helarazteko asmoz, bilera batera joateko gonbit egiten dizugu. Informazio-bilera apirilaren 26an, 14:30ean, egingo dugu Santa Klara kulturtegian.

Zuen zain gaude

Izena emateko eta harremanetan jartzeko telefonoa
Merkataritzako Bulego Teknikoa: 94 472 93 53

